

INGURUNE -GIZARTE EBALUAZIO IRIZPIDEAK

1. Informazioa bilatzea eta hautatzea, bitarteko eta baliabide digital eta analogikoen bidez, bai banaka, bai taldean, bai sarean, haren fidagarritasuna eta egokitasuna ebaluatuz eta teknologia digitalak modu seguru eta iraunkorrean erabiltzeko ohiturak hartuz, hura ezagutza bihurtzeko eta modu antolatuan eta sortzailean komunikatzeko.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KE2, STEM4, DK1, DK2, DK3, DK4, DK5, EKK3, PSIIK5.

4.MAILA	5.MAILA	6.MAILA
1.1.Informazioa bilatzeko eta hautatzeko oinarrizko estrategiak modu arautuan erabiltzea, eredu jakin bati jarraituz. 1.2. Informazioa bilatzea eta hautatzea, banaka eta taldean, zenbait iturri seguru eta fidagarri modu kritikoan erabiliz, oinarrizko lexiko zientifikoa eskuratuz eta hura ingurune naturalarekin, sozialarekin eta kulturalarekin lotutako ikerketetan aplikatuz. 1.3. Gailu eta baliabide digitalak modu seguru eta iraunkorrean erabiltzea, zereginaren premia eta helburuen eta hezkuntza- testuinguruaren arabera, eta eduki digital errazak sortzea.	1.1. Informazioa bilatzeko hautatzeko eta bereizteko estrategia errazak erabiltzea. 1.2. Iturri desberdinetatik datorren informazioa alderatzea modu kritikoan. 1.3. Baliabide digitalak erabiltzea, zereginaren premien eta hezkuntza-testuinguruaren arabera edukiak sortzeko, modu eraginkor eta kritikoan, erabilera seguru eta iraunkorrerako ohiturak hartuz.	1.1.Informazioa hautatzeko eta bereizteko estrategiak planteatutako helburura egokituz erabiltzea. 1.2. Bi iturri baino gehiagotatik datorren informazioa bilatzea, hautatzea eta antolatzea, banaka eta taldean, modu planifikatuan eta gero eta autonomoagoan, fidagarritasuna ebaluatuz, oinarrizko hiztegi zientifikoa eskuratuz eta eraginkortasunez komunikatuz, zereginaren helburuen arabera. 1.3. Baliabide digitalak erabiltzea, zereginaren premien eta hezkuntza-testuinguruaren arabera edukiak sortzeko, modu eraginkor eta kritikoan, erabilera seguru eta iraunkorrerako ohiturak hartuz.

2. Galdera zientifiko errazak planteatzea eta erantzutea, pentsamendu zientifikoaren berezko teknikak eta tresnak erabiliz, eta jakintza desberdinak elkarri konektatuz, ingurune naturalean, sozialean eta kulturean gertatzen diren gertaerak eta fenomenoak interpretatzeko eta azaltzeko.

Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KE2, STEM1, STEM2, STEM4, DK1, DK2, PSIIK4, PSIIK5, HK4, EKK1, EKK3.

4.MAILA	5.MAILA	6.MAILA
2.1.Gogoeta egitea eta galdera egokiak egiten ikastea, modu gidatu eta arautuan. 2.2. Ikerketak eskatzen duenean, esperimenduak gidatuz egitea, hainbat ikerketa-teknika erabiliz, tresnak eta gailuak modu seguruan erabiliz, behaketa eta neurketa zehatzak eginez eta behar bezala erregistratuz.	2.1. Gogoeta egitea eta galdera egokiak egiten ikastea modu kooperatiboan. 2.2. Ikerketak eskatzen duenean, esperimenduak gidatuz egitea, hainbat ikerketa-teknika erabiliz, tresnak eta gailuak modu seguruan erabiliz, behaketa eta neurketa	2.1. Modu kooperatiboan gogoeta egitea pentsamenduak historian zehar izan duen bilakaeraren inguruan, galdera egokiak eginez, prozesu horren gakoak ulertuz, egungo ebidentzia zientifikoak dagokion garaia pentsamendu zientifikoarekin kontrastatuz eta egungo garaira ekarri.

2.3. Natura-, gizarte- eta kultura- inguruneari buruz egindako galderei erantzun posibleak proposatzea, informazioa eta lortutako emaitzak interpretatuz eta egindako iragarpenekin alderatuz. 2.4. Eskolako eredu zientifikoak modu arautu eta gidatuan eraikitzea, esperimentaziotik abiatuta lortutako ezagutza zientifikoak aplikatuz eta egindako prozesuari buruz gogoeta eginez. 2.5. Ikerketen emaitzak banaka eta taldean aurkeztea, hainbat formatutan (ahozkoan, grafikoan, idatzizkoan eta digitalean), oinarritzko hizkuntza zientifikoa erabiliz eta emandako urratsak azalduz.	zehatzak eginez eta behar bezala erregistratuz eta emaitzak interpretatzea. 2.3. Natura-, gizarte- eta kultura- inguruneari buruz egindako galderei erantzun posibleak proposatzea, informazioa eta lortutako emaitzak interpretatuz eta egindako iragarpenekin alderatuz. 2.4. Eskolako eredu zientifikoak modu arautu eta gidatuan eraikitzea, esperimentaziotik abiatuta lortutako ezagutza zientifikoak aplikatuz eta egindako prozesuari buruz gogoeta eginez. 2.5. Ikerketen emaitzak modu kooperatiboan komunikatzea, mezua eta formatua hartzaile den audientziara egokituz, hizkuntza zientifikoa erabiliz, emandako urratsak azalduz eta genero- ikuspegia hartuz.	2.2. Ekerketak hala sperimentuak diseinatzea eta egitea, ieskatzen duenean modu gidatuan, hainbat ikerketa-teknika baliatuz, tresna eta gailu egokiak modu seguruan erabiliz, behaketa eta neurketa zehatzak eginez, behar bezala erregistratuz eta horien emaitzak jakinaraziz. 2.3. Natura-, gizarte- edo kultura- ingurunearekin lotutako gaiei buruz egindako galderei erantzun posibleak proposatzea, informazioa eta lortutako emaitzak aztertuz eta interpretatuz, izan daitezkeen irtenbideen koherentzia baloratuz eta egindako iragarpenekin alderatuz. 2.4. Ereduak modu autonomoan diseinatzea eta eraikitzea, esperimentaziotik abiatuta lortutako ezagutza zientifikoak aplikatuz eta azken prozesuari eta produktuari buruz gogoeta eginez. 2.5. Ikerketen emaitzak modu kooperatiboan komunikatzea, mezua eta formatua hartzaile den audientziara egokituz, hizkuntza zientifikoa erabiliz, emandako urratsak azalduz eta genero- ikuspegia hartuz.
3. Problema diziiplina arteko proiektuen bidez ebaztea, diseinu-pentsamendua eta pentsamendu konputazionala erabiliz, premia zehatzei erantzungo dien produktu sortzaile eta berritzaile bat modu kooperatiboan sortzeko. Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KE2, STEM1, STEM2, STEM3, STEM4, DK1, DK2, DK3, DK5, PSIIK3, PSIIK4, PSIIK5, HK1, HK4, EKK1, EKK2, EKK3, KKAK4.		
4.MAILA	5.MAILA	6.MAILA
3.1. Prototipo edo soluzio digital baten diseinuaren bidez ebazten diren problemak identifikatzea, ingurune hurbileko beharrak aztertuz eta helburu errazak ezarri. 3.2. Planteatutako problemetarako irtenbide iraunkorrak proposatzea, diseinu-pentsamenduko eta pentsamendu konputazionalako teknika errazen bidez, beharrezko baliabideak identifikatuz, proiektu kooperatiboak kudeatzeko oinarritzko estrategiak erabiliz eta proiektua ebaluatzen irizpide pertsonalak ezarri. 3.3. Diseinu-problema bati soluzioa emango dion azken produktu erraz bat taldean eraikitzea, zenbait prototipo edo	3.1. Prototipo edo soluzio digital baten diseinu sortzailearen bidez ebazten diren problemak laguntzarekin planteatzea, ingurunearen beharrak ebaluatuz eta helburu zehatzak ezarri. 3.2. Planteatutako problemetarako irtenbide iraunkorrak proposatzea, diseinu-pentsamenduko eta pentsamendu konputazionalako teknika errazen bidez, beharrezko baliabideak identifikatuz, proiektu kooperatiboak kudeatzeko oinarritzko estrategiak erabiliz eta proiektua ebaluatzen irizpide pertsonalak ezarri. 3.3. Diseinu-problema bati soluzioa emango dion azken produktu bat taldean eraikitzea, zenbait prototipo edo soluzio	3.1. Prototipo edo soluzio digital baten diseinu sortzailearen bidez ebazten diren problemak planteatzea, ingurunearen beharrak ebaluatuz eta helburu zehatzak ezarri. 3.2. Planteatutako problemen soluzio posibleak diseinatzea, diseinu-pentsamenduko eta pentsamendu konputazionalako teknika sinpleen arabera, proiektu kooperatiboak kudeatzeko oinarritzko estrategien bidez, beharrezko baliabideak kontuan hartuz eta proiektua ebaluatzen irizpide objektibo zehatzak ezarri.

soluzio digital probatuz eta tresna, gailu, teknika eta material egokiak modu seguruan erabiliz. 3.4. Diseinu-proiektuen emaitza aurkeztea, emandako urratsak azalduz eta prototipo edo soluzio digital horrek proiektuaren eskakizunak zergatik betetzen dituen justifikatuz.	digital probatuz eta tresna, gailu, teknika eta material egokiak modu seguruan erabiliz. 3.4. Diseinu-proiektuen emaitza aurkeztea, emandako urratsak azalduz eta prototipo edo soluzio digital horrek proiektuaren eskakizunak zergatik betetzen dituen justifikatuz.	3.3. Diseinu-problema bati soluzioa emango dion azken produktu bat taldean garatzea, zenbait prototipo edo soluzio digital probatuz eta tresna, gailu, teknika eta material egokiak modu seguruan erabiliz. 3.4. Diseinu-proiektuen emaitzak jakinaraztea, mezua eta formatua entzuleei egokituz, emandako urratsak azalduz, prototipo edo soluzio digital horrek proiektuaren baldintzak zergatik betetzen dituen justifikatuz eta etorkizuneko proiektuetarako erronka posibleak proposatuz.
4. Norberaren gorputza, eta norberaren eta besteen emozio eta sentimenduak ezagutzea eta horien kontzientzia hartzea, ezagutza zientifikoan oinarritutako ohitura osasungarriak garatuz, ongizate fisikoa, emozionala eta soziala lortzeko. Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KE2, KE3, STEM5, DK2, DK3, PSIIK1, PSIIK2, PSIIK3, HK3, HK4, EKK1.		
4.MAILA	5.MAILA	6.MAILA
4.1 Elikadura askotarikoan eta orekatuan, ariketa fisikoan eta atsedenean oinarritutako bizi- ohitura osasungarriak hartzeko beharra baloratzea eta ezagutzea. 4.2. Ongizate emozionala eta soziala sustatzen duten jarrerak erakustea, norberaren eta besteen emozioak identifikatuz, enpatia erakutsiz eta harreman afektibo osasungarriak ezarri. 4.3. Norberaren gorputza ezagutzea eta onartzea, eta aniztasuna gizartearen elementu aberasgarri gisa baloratzea eta errespetatzea, desberdina denarekiko tolerantzia-jarrera erakutsiz.	4.1. Bizi-ohitura osasungarriak hartzea, elikadura askotarikoaren eta orekatuaren, ariketa fisikoaren, atsedenean, higienearen eta gaixotasunen prebentzioaren garrantzia baloratuz. 4.2. Ongizate emozionala eta soziala bultzatzen duten jarrerak sustatzea, norberaren eta besteen emozioak identifikatuz, horiek baliaraziz, harreman afektibo osasungarriak sustatuz. 4.3. Norberaren gorputza ezagutzea, onartzea eta errespetatzea, aniztasuna gizartearen elementu aberasgarri gisa baloratuz, enpatia erakutsiz eta desberdina denarekiko tolerantzia izanez.	4.1. Bizi-ohitura osasungarriak hartzea, elikadura askotarikoaren eta orekatuaren, ariketa fisikoaren, atsedenean, higienearen eta gaixotasunen prebentzioaren garrantzia baloratuz. 4.2. Ongizate emozionala eta soziala bultzatzen duten jarrerak sustatzea, norberaren eta besteen emozioak identifikatuz, horiek baliaraziz, harreman afektibo osasungarriak sustatuz eta teknologiaren erabilerari eta aisialdiaren kudeaketari buruz gogoeta eginez. 4.3. Norberaren gorputza ezagutzea, onartzea eta errespetatzea, aniztasuna gizartearen elementu aberasgarri gisa baloratuz, enpatia erakutsiz eta desberdina denarekiko tolerantzia izanez.

5. Natura-, gizarte- eta kultura-inguruneko elementu edo sistemen ezaugarriak identifikatzea eta aztertzea, horien antolamendua eta ezaugarriak deskribatuz eta horien arteko harremanak ezarriz, kultura- eta natura-ondarearen balioa ezagutzeko eta hura kontserbatzeko eta hobetzeko ekintzei ekiteko, erabilera arduratsu eta iraunkorraren bidez. Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK3, KE1, KE2, STEM1, STEM2, STEM4, STEM5, DK1, PSIIK4, HK1, HK4, EKK1, KKA1, KKA2.		
4.MAILA	5.MAILA	6.MAILA
5.1. Natura-, gizarte- eta kultura- inguruneko elementuen ezaugarriak, antolamendua eta propietateak identifikatzea, ikerketa-metodologiaren bidez eta tresna eta prozesu egokiak erabiliz. 5.2. Natura-, gizarte- eta kultura- inguruneko elementuen arteko konexio errazak identifikatzea, haien artean ezartzen diren harremanak ulertzen direla erakutsiz. 5.3. Ideia zientifikoak aurrerapen teknologiko, kultural eta sozialekin erlazionatzea eta baloratzea, bizi- kalitatea hobetzea ahalbidetzen dutela onartuz. 5.4. Natura- eta kultura-ondarea baloratzea eta babestea, hura ondasun komun gisa onartuz, ondare horretaz gozatzeko errespetuzko jokabideak hartuz eta berori kontserbatzeko eta hobetzeko ekintzak proposatuz.	5.1. Natura-, gizarte- eta kultura- inguruneko elementuen ezaugarriak, antolamendua eta propietateak identifikatzea eta aztertzea, ikerketa-metodologiaren bidez, tresna eta prozesu egokiak erabiliz eta emaitzak jakinaraziz. 5.2. Natura-, gizarte- eta kultura- inguruneko elementuen arteko konexio errazak egitea, haien artean sortzen diren harremanak ulertzen direla erakutsiz. 5.3. Aurrerapen teknologiko, kultural eta sozialekin ideia zientifikoak modu kritikoan aztertzea eta baloratzea, bizi- kalitatea hobetzea ahalbidetzen dutela onartuz. 5.4. Natura- eta kultura-ondarea kontserbatzeko eta hobetzeko jarrerak baloratzea, babestea eta erakustea, iraunkortasunaren aldeko konpromisoak eta jokabideak islatuko dituzten proposamen eta ekintzen bidez.	5.1. Natura-, gizarte- eta kultura- inguruneko elementuen ezaugarriak, antolamendua eta propietateak identifikatzea eta aztertzea, ikerketa-metodologiaren bidez, tresna eta prozesu egokiak erabiliz eta emaitzak jakinaraziz. 5.2. Natura-, gizarte- eta kultura- inguruneko elementuen arteko konexio errazak egitea, haien artean sortzen diren harremanak ulertzen direla erakutsiz. 5.3. Aurrerapen teknologiko, kultural eta sozialekin ideia zientifikoak modu kritikoan aztertzea eta baloratzea, bizi- kalitatea hobetzea ahalbidetzen dutela onartuz. 5.4. Natura- eta kultura-ondarea kontserbatzeko eta hobetzeko jarrerak baloratzea, babestea eta erakustea, iraunkortasunaren aldeko konpromisoak eta jokabideak islatuko dituzten proposamen eta ekintzen bidez.
6. Gizakiak ingurunean esku hartzearen arrazoiak eta ondorioak kritikoki aztertzea, arlo sozialak, ekonomikoak, kulturalak, teknologikoak eta ekologikoak integratuz, arazoei aurre egiteko gaitasuna garatzeko, konponbideak bilatzeko eta haiek ebaztean banaka eta kolaborazioan jarduteko, praktikan jarri behar diren iradurak eta bat etorriko diren pertsonen eta planetarekiko errespetuarekin, zaintzarekin eta babesarekin. Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, HKK5, KE1, KE2, KE3, STEM1, STEM2, STEM5, DK2, DK3, DK5, PSIIK4, HK1, HK2, HK3, HK4, EKK1, EKK2, EKK3, KKA1.		
4.MAILA	5.MAILA	6.MAILA
6.1. Pertsonen bizitzaren eta inguruneko elementu eta baliabideen gaineko haien ekintzen arteko erlazioa kritikoki	6.1. Pertsonen bizitzaren eta inguruneko elementu eta baliabideen gaineko haien ekintzen arteko erlazioa kritikoki	6.1. Giza interakzioaren kausak eta ingurunean dituen ondorioak kritikoki aztertzea, alderdi soziala, ekonomikoa,

aztertzea, giza ekintzak ingurunean eragiten dituen aldaketa positiboez eta negatiboez jabetuz eta bizitza bere forma desberdinetan errespetatuz. 6.2. Planeta, pertsonak eta ingurunea zaintzeko, babesteko eta errespetatzeko ohitura iraunkor egokiak praktikan jartzea. 6.3. Inguruneko arazo ekosozialak antzematea, ondorio kaltegarrienak dituztenak saihesten lagun dezaketen ekintzak modu kooperatiboan proposatuz.	aztertzea, giza ekintzak ingurunean eragiten dituen aldaketa positiboez eta negatiboez jabetuz eta bizitza bere forma desberdinetan errespetatuz. 6.2. Planeta, pertsonak eta ingurunea zaintzeko, babesteko eta errespetatzeko ohitura iraunkor egokiak praktikan jartzea. 6.3. Inguruneko arazo ekosozialak antzematea, ondorio kaltegarrienak dituztenak saihesten lagun dezaketen ekintzak modu kooperatiboan proposatuz.	kulturala, teknologikoa eta ekologikoa integratuz, eta problemak identifikatuz. Bizitza iraunkorraren kontzientzia transferitzea, planetak dituen arazoentzako irtenbideak bilatzeko eta bere ingurunean jendaurrean jakinarazteko. 6.2. Jarrera ekintzailea erakustea arazo ekosozialei aurre egiteko proposamenak bilatu, kontrastatu eta ebaluatzean, banaka eta taldean soluzio arrazoituak emanez.
7. Natura-, gizarte- eta kultura-ingurunearen jarraitutasunak eta aldaketak behatzea, ulertzea eta interpretatzea, kausalitateko, aldiberekotasuneko eta segidako erlazioak aztertuz, elementuen eta gertaeren arteko loturak azaltzeko eta baloratzeko, eta iraunkortasun-irizpideen arabera jokatzeko. Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KE2, STEM4, DK1, DK4, DK5, PSIIK4, HK1, HK3, EKK2, KKA1.		
4.MAILA	5.MAILA	6.MAILA
7.1. Natura-, gizarte- eta kultura- inguruneko hurbileko gertaerak aldi baterako antolatzea, oinarrizko neurri- eta segida-nozioak erabiliz, historiako pertsona garrantzitsuekiko, iraganeko bizimoduekiko eta horien bilakaeraren garrantziarekiko jakin- mina erakutsiz.	7.1. Erdi Arotik Aro Modernora bitarteko natura, gizarte eta kultura-inguruneko elementuen arteko kasualitate aldiberekotasun eta jarraitutasun-erlazioak aztertzea, gertakari eta pertsona garrantzitsuak ardatz kronologikoetan kokatuta eta historiaren hainbat garaitako gizarte-ezaugarri esanguratsuak identifikatuta.	7.1. Aro Modernotik gaur egunera bitarteko natura, gizarte eta kultura-inguruneko elementuen arteko kasualitate aldiberekotasun eta jarraitutasun-erlazioak aztertzea, gertakari eta pertsona garrantzitsuak ardatz kronologikoetan kokatuta eta historiaren hainbat garaitako gizarte-ezaugarri esanguratsuak identifikatuta.
8. Natura-, gizarte- eta kultura-ingurunearen jarraitutasunak eta aldaketak behatzea, ulertzea eta interpretatzea, kausalitateko, aldiberekotasuneko eta segidako erlazioak aztertuz, elementuen eta gertaeren arteko loturak azaltzeko eta baloratzeko, eta iraunkortasun-irizpideen arabera jokatzeko. Konpetentzia espezifiko hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK1, HKK2, HKK3, KE1, KE2, STEM4, DK1, DK4, DK5, PSIIK4, HK1, HK3, EKK2, KKA1		
4.MAILA	5.MAILA	6.MAILA
8.1. Migrazioek gaur egun duten garrantzi demografikoa, kulturala eta ekonomikoa aztertzea, etengabe eraldatzen ari den gizarte baten ongizate kolektiboari egiten dioten ekarpena baloratzuz eta kultura-aniztasun guztiarekiko enpatia eta errespetua erakutsiz.	8.1. Norberaren eta taldearen ongizatea eta Europaren integrazioaren balioak lortzen laguntzea, egungo gizartea itxuratu duten prozesu geografiko, historiko eta kulturalak ezagutuz, kultura- aniztasuna baloratzuz, eta pertsona guztiekiko eta genero- berdintasunarekiko enpatia eta errespetua erakutsiz.	8.1. Norberaren eta taldearen ongizatea eta Europaren integrazioaren balioak lortzen laguntzea, egungo gizartea itxuratu duten prozesu geografiko, historiko eta kulturalak ezagutuz, kultura- aniztasuna baloratzuz, eta pertsona guztiekiko eta genero- berdintasunarekiko enpatia eta errespetua erakutsiz.

8.2. Genero-berdintasuna, ikuspegi ez-estereotipatua eta jokabide ez-sexistak sustatuko dituzten ekintzak positiboki baloratzea, historian zehar izandako eredu positiboak antzemanaz. 8.3. Ikerketa txikiak egitea inguruneko kultura-aniztasunaren errealitateari buruz, dagoen ondare-aberastasunaz eta -aberastasunaz jabetuz, eta pertsona eta kultura desberdinekiko errespetuzko eta elkarriketako jarrera sustatuz.	8.2. Genero-berdintasuneko jarrerak, ikuspegi ez-estereotipatua eta jokabide ez-sexistak sustatzea, gure gizartean dauden eredu desberdinak aztertuz eta alderatuz.	8.2. Genero-berdintasuneko jarrerak, ikuspegi ez-estereotipatua eta jokabide ez-sexistak sustatzea, gure gizartean dauden eredu desberdinak aztertuz eta alderatuz.
9. Aniztasuna eta genero-berdintasuna onartzea eta baloratzea, pertsona guztiekiko enpatia eta errespetua erakutsiz, gai etikoei buruz modu kritikoan gogoeta eginez, etengabe eraldatzen ari den gizarte baten ongizate indibidual eta kolektiboan laguntzeko eta Europan bizikidetzak baketsua eta errespetuzkoa lortzeko. Konpetentzia espezifikoa hau irteera-profilaren deskriptore hauekin lotzen da: HKK 1, HKK2, HKK5, KE1, KE3, DK1, DK2, DK3, PSIIK3, HK1, HK2, HK3, KKAK1, KKAK2.		
4.MAILA	5.MAILA	6.MAILA
9.1. Eskola-elkartearen barruan parte hartzea, jarduerak eginez, erantzukizunak bere gain hartuz eta akordioak elkarriketaren bidez eta demokratikoki ezarriz, eta hizkera inklusiboa eta indarkeriarik gabekoa erabiliz. 9.2. Hainbat administrazioen (tokiko, eskualdeko eta lurraldekoen) gobernu-organo eta funtzio nagusiak ezagutzea, horiek kudeatzeak herritarrentzat eta parte-hartze demokratikoarentzat duen garrantzia baloratuz. 9.3. Oinezko eta lokomozio-bideen erabiltzaile gisa arauak ezagutzea eta barneratzea, trafiko-seinaleak ezagutuz eta pertsonen mugikortasun iraunkorraren garrantziaz jabetuz.	9.1. Eskola-elkartearen barruan parte hartzea, jarduerak eginez, erantzukizunak bere gain hartuz eta akordioak elkarriketaren bidez eta demokratikoki ezarriz, eta hizkera inklusiboa eta indarkeriarik gabekoa erabiliz. 9.2. Udalerriko, foru-aldundietako, autonomia-erkidegoetako, Espainiako estatuko eta Europar Batasuneko gobernu-organoen funtzionamendu orokorra eta parte-hartze demokratikorako haien formak azaltzea, dituzten funtzioak eta herritarrentzako zerbitzu publikoen kudeaketa baloratuz. 9.3. Zirkulazio-arauak gaizki erabiltzearen ondorioak kritikoki baloratzea eta barneratzea, eta mugikortasun iraunkorrakoa eta arduratsuakoa lortzeko proposatzea	9.1. Interakzio errespetuzkoa eta ekitatiboa sustatzea, eta gatazkak modu baketsuan eta elkarriketaren bidez ebaztea hizkera inklusiboa eta indarkeriarik gabekoa erabiliz, eta Espainiako eta Europar Batasuneko konstituzioetako arau, eskubide, betebeharrak eta askatasun nagusiak azalduz eta baliatuz. 9.2. Udalerriko, foru-aldundietako, autonomia-erkidegoetako, Espainiako estatuko eta Europar Batasuneko gobernu-organoen funtzionamendu orokorra eta parte-hartze demokratikorako haien formak azaltzea, dituzten funtzioak eta herritarrentzako zerbitzu publikoen kudeaketa baloratuz. 9.3. Zirkulazio-arauak gaizki erabiltzearen ondorioak kritikoki baloratzea eta barneratzea, eta mugikortasun iraunkorrakoa eta arduratsuakoa lortzeko proposatzea.

